# HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

# UDAZKENEKO KONTZERTUA

*2018ko abenduaren 16an - 18:00 - Oiartzungo Udaletxean - 5 euro*

## FOLKETAN

## *(Bizkaia)*




Sestaoko hamaika musikari bildu ziren 2010. urtean, kultur elkarte desberdinetatik etorrita, Bizkaiko udalerri horretako X. MUSIKALE jaialdian parte hartzeko asmoz. Sestaoko Udalak antolatzen duen kale-musikako jaialdi horretan jatorri desberdineko musikak entzuteko aukera izaten da.

Arrakasta handia izan zuen esperientziak eta berebiziko interesa piztu zen lagun haiengan. Hala, ekimenari jarraipena emanez eta musika-kultura desberdinen bilgune gisa FOLKETAN taldea sortu zuten.

Izan ere, taldearen musikan estilo desberdinak uztartzen dira. Oinarria Euskal Herriko musika tradizionalean, baita Galiziakoan ere, du. Baina inspirazio iturriak bestelako kultura eta musiketan bilatzeko eta ekarpen horiekin errepertorioa aberasteko, hala nola musika zeltan, Erdialdeko Europakoan, Eskandinaviakoan, bluegrass eta abarretan, ateak irekita ditu taldeak.

Denboraren joanean, elkarrekin lan eginez, norberaren ezagutzak besteekin partekatuz, aurrera egin du taldeak piezak sortu eta moldatzeko lanean. Horren erakusgarri 2017an burutu dituzten bi lanak: batetik, taldearen lehen diskoa, “Hamaika entzuteko!”, Gaua estudioan grabatua; bestetik, Sestaoko erraldoien konpartsarekin grabatutako “Biraka ari” CD-DVD lana.

Hainbat tokitan izan dira jotzen: Arabako Laudio Folk jaialdian, Sestaoko jaietan, Galiziar Letren Egunean eta Magostoetan, Portugaleteko Ibilaldian, Barakaldoko Herrien arteko Folklore Jaialdian, eta Bizkaiko beste udalerri batzuetan ere. Durangoko Azokan ere aurkeztu zuten taldearen grabazioa, 2017ko abenduan, eta 2018ko urtarrilean Mallorcako Pollença herriraino iritsi ziren, lan berbera aurkeztera, bertako Xeremiers Orats taldearekin batera egin zuten kontzertu berezi batean.

Gaur egun, lagun hauek osatzen dute Folketan taldea:

·Javier Ortiz de Zarate: boza, alboka, zarrabetea, uilleann pipes, txirula, ttunttuna, txanbela, whistleak.

·Luis Zulueta: gitarra akustikoa, boza.

·Ramiro Lamas: gitarra akustikoa eta elektrikoa, boza.

·Nerea García: biolina.

·Gorka Agirregabiria: bajo, pandero.

·Xurxo Gago: bateria, kaxoia, bodhran eta bestelako perkusioak.

·Fernando Baños: txistu eta txirula.

·Aitor Gorostiza: whistleak, txirula, harmonika, flauta, tarota & panderoa.

·Julen Murga: eskusoinua.

# BUFALODRE
## *(Catalunya)*



Daniel Carbonell
tarota

Francesc Sans
sac de gemecs

Iris Gayete
flabiol, tamborín

**Toca Festa!!!!**

Festa, bere zentzu zabalenean, gizatalde guztien nortasuna osatzen duten elementuetako bat da. Katalunian festak intentsoak, hotsandikoak, koloretsuak, argiz, suz, dantzaz eta musikaz beteak dira. Festako protagonista ugarien arteko batzuk oharkabean pasa daitezke. Horren adibide dira herri musikako musikariak. Garai guztietan ordezka ezinak, beraien historia gure herri kulturaren, edo haren zati handi baten, historia bera da. Beraiekin, beraien soinu-tresnei, errepertorioari eta festari leial, dirau eta gure garaira iritsi da gure kultur ondarearen ordezkaezinezko zati bat.

**Toca Festa!!!!** soinu-tresnen ezagutzan, errepertorioan eta herri musikak Katalunian bete dituen funtzioetan barneratzen laguntzen digun kontzertua da. Soinu-tresnen beraien eta musikarien bidez bata bestearen atzetik azalduko dira ezagutza horiek. Flabiola eta danborra, sac de gemecs, tarota eta haiekin jos daitezkeen talde herrikoi ezberdinak ikusiko ditugu.

**Bufalodre** Valls hirian 1994an sortu zen. Gaur egun Camp de Tarragonako hainbat musikarik osatzen dute. Eskualde honetan ohiturak eta festak oso biziak dira. Eta oraindik gutxi ezagutzen diren, eta inguru tradizionaletik kanpo gutxitan jotzen diren, bitxikeria musikalak gordetzen dira bertan. Musikan txikitatik murgilduak, talde honetako kideek urteak daramatzate interpretatzeko erak, asko fosilizatu eta ahaztuak, lantzen, ikertzen eta biltzen. Hortik abiatuta zenbait doinu birlandu dituzte XX. mendeko biztanleentzat egokituz, aspaldi ahaztu den musika egiteko era bat biziarazteko.

Taldeko kideak irakaskuntzan ere aritzen dira. Gaur egun *ESMUC*, Reuseko *Aula de Sons*, Vilafranca del Penedèseko *EMM Maria Dolors Calvet*, Tarragonako *EMMT* edota Vallseko *EspaiTrad* guneetan irakasle edo zuzendari aritzen dira.

Interes bereziko bezala izendatuta dauden ohiturazko festetan (Reus, Tarragona, Valls, Sitges, l'Arboç, Vilafranca del Penedès, Barcelona...) ohikoak dira musikari hauek, baita ikutu herrikoiagoa dutenetan ere. Beraien moldakortasuna dela eta entremes ugari laguntzen aritu dira: Vilafrancako *Ball de Pastorets*, Tarragonako *Ball de Valencians*, Vallseko *l'Àliga*, Barcelonako *Drac*, Reuseko *Ball de Prims*, etab.

Egoera musikal eta instrumental ezberdinetara egokitzeko duten gaitasuna dela eta, Bufalodre taldea kale, enparantza eta oholtzetan antolaketa ezberdineko taldeetan ikus dezakezue beraien sonu-tresnekin: *mitja cobla*, *tres quartans*, *cobla de ministriles* edo gralla taldea.

Castilla, Madril, Balearrak, Valentzia, Andaluzia, Galizia, Portugal, Frantzia, Alemani, Italia eta leku gehiagotan jo dute. Toni Xuclà, Kepa Junkera, Mercedes Peón, Carlos Beceiro eta Carlos Núñez bezalako musikariekin aritu dira eta hainbat disko eta liburu dituzte argitaratuta.

**kontzertu honen laguntzaileak:**

